

MARIA IRASTORZA
SAGARZAZUREN OMENEZ



“La gran familia”

*Le convierte el cuerpo de la paloma en un cielo con nubes o son
cielo y nubes las que adoptan forma de pájaro*

Heriotzaren atzaparrak, iristerakoan bilutzik aurkitu zuen. Amaren arima garden eta sendoak borroka tinko egin arren, lapur maltzur baten modura, patu zorigaiztoa apurka azken guda irabazten joan zen. Nahiz eta *gure bizitzaren iturriaren bihotzak* maitasuna eta pakea isurtzen jarraitu amaiera arte, haren alde materiala agortzen zihoan.

Borondate indartsuaren jabe zen *emakume xarmant* honek, bizitzari aurre egiteko erabili behar izan zuen ausardiaren lekuko adierazgarri gisa, ez zuen amore eman nahi, ezta ere haren semealabek, bateratsu eta indar guztiak elkartzuz bukaeraren gezia desbideratzeko lanean jardun baikenuen.

Hala ere, sinuaren poderioz, bizitzaren jario miresgarriak ahultzearen itzulezinezko bidea hartzerakoan, aldi berean semealaben itxaropen sutsuak itzaltzen hasi ziren.

Dena dela *Amodioaren Atean jabe den Anderearen* bukaera, bizitza berri bat bilakatu da. Jesusen antzera *Ama-Anderearen* heriotza ez da amaiera gordin bat, baizik eta garai berri baten hastapena. *Jatorrizko euskaldun emakumearen nortasunaren azkenetariko harribitxi honen* ondorengook, bere arima-oroitzapenen laguntzaren bidez aurrera jarraitzeko asmo sendoak ditugu, haren izpiritua eta jarreraren lekuko eta jarraitzaile finak bihurtuz.

Gorputza desagertu arren, pentsakerak, bukaezinezko maitasun berritzaileak, eta jarrera-jarduera apartak, familia giroaren euskarri eta eredu gelditu dira. Semealaben etorkizunaren eredu gertatu-gauzatuko direnak, *Andramariren* bizitza lurtiarraren sari moduan. Hots, gure esker onaren moduan haren bizitzak utzi dituen urratsak jarraituko ditugu, omenaldi sentikor baten antzera.

Jakin badakigu, zerua baldin badago, han goitik buru-belarri zainduko gaituela. Gure gorabeherak jarraituz, eta aholkuak bidaliz, agian ametsetan apaindurik edo burutapenen bidez, edo oroitzapen eginkorren moduan.

Gure *sortzailearen* heriotzak "salbazio" baten modura, bizitzari eusten laguntzen digu, ustegabeko bide honetan sendo eta borondate osoarekin jarraitzeko grina emana. Erljio askok dioten bezala, bizitza berpizteko heriotzaren beharra dagoela jabetzen bagara, Mariaren irakaspentak, jarrerak eta jarduerak, lanerako zaletasunak eta maitasun mugagabeak, zenba-ezinezko balio duen eredu bat direlakoan gaude. Idatzi hau ez zen burutuko, bere oroitzapenaren eraginkortasunik gabe.

Aldi berean, ezin dugu anaiarrebok, eta beste ahaideek, elizkizunetan azaldu zireten guztiei berriro eskertzeko aukera galdu nahi. Azken finean egun latz hartan, San Joan Bataiatzailearen eliza erraldoia goraino bete genuen jende multzo handi hori, amaren izaera eredugarriaren isla besterik ez da.

NIKOLAS ALBIZU IRASTOZA